



IXAKA LOPEZ-MENDIZABAL
(1879-1977)

Egilea:

XABIER TELLERIA

Maiz sarritan gertatu izan da, lan bakar batek itzala egin izan diola pertsona jakin baten bizitza osoko jardunari. Eta antzeko zerbait esan daiteke Ixaka Lopez-Mendizabalen lanagatik ere. Gehienok aditzera badugu, *Xabiartxo* bere eskola-liburuari esker da, zalantzarik gabe. Liburu horrek, ederra izanda ere, ia ezkutuan utzi du Tolosako herriak eman duen gizonik kementsuenetariko baten gainerako obra osoa. Eta lan handia utzi du Ixaka Lopez-Mendizabalek, bere ideia eta bizitzaren iparra izan ziren abertzaletasuna, fedea eta euskararen mesedetan.



Ixaka Lopez-Mendizabal 1879-1977

2 XIX. mendearen amaierako urteek eta amaitzear dagoen xx.aren hasierakoek zerikusi handia izan zuten egun ezagutzen dugun Tolosako herriaren egituraketan. Herriaren aurreko izaerarekin eten nabarmena gertatu zen urte hauetan, eta horretarako arrazoiak garbi agertzen ditu Jose Antonio Rodriguez Ranz historialariak:

«Industrializazio prozesu indartsuak, biztanlegoaren hazkuntzak, hiriaren zabalkundeak eta jarrera ideologiko berrien garapenak XIX. mendean Tolosako izaera izan zenaren nolabaiteko aldaketa ekarri zuten. Papergintzak izandako aurrerapenak izan ziren aldaketa horren eragile nagusienetako bat. Herriak funtsezko mudantzak izan zituen...»

Aldaketa-zurrunbiloak bete-betean harrapatu zuen Ixaka Lopez-Mendizabal, haurtzaro eta gizondu bitarteko urteetan. Ikuspegi zabalago batetik, politikan bilakaera nabaria eman zen mende-muga horren inguruan: foruzaletasunetik abertzaletasunera jira egin zuen ipar politikoak. Horrekin batera joera-aldaketa sumatu zen euskararen inguruan ere: euskaltzaletasun erromantikotik euskaltzaletasun militanterako bilakaera. Eta bi alderdi hauen uztardurak eman zuen fruiturik, botere politikoak euskal kulturaren alde hartutako konpromezuan.



Tolosa XX. mende hasieran, aldaketa nabarmenak egin zituenekoa

Ixaka Lopez-Mendizabalek euskararen eta kulturaren inguruan erakutsi zuen arduran izan zuen eraginik familiaren giroak. Baina ez zen txikiagoa izan 1936ko gerraren aurretik Tolosan osatu zen euskaltzale taldearena, gehienak EAJ alderdian ardura-karguak zituztenak. Estu-estuan eta elkarren babesean aritutakoak ziren herrian garaitu berean bildutako lagunak: Patrizio Orkaiztegi artzapeza; Doroteo Ziaurritz, mediku eta politikaria, Tolosako alkate izana; Antonio M.^a Labaien idazlea, Tolosako zinegotzi eta alkate, antzerkigile oparoa; Jose Eizagirre, artikulugilea, tenore abeslaria, Eusko Ikaskuntzako kide eta Errepublika sasoian EAJko diputatua; Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiza: Euskaltzaleak elkarteko zuzendaria eta *El Día* eta *Yakintza* argitalpenen sortzailea. Jose M.^a Agirre, *Lizardi*, euskal idazle eta olerkaria, Euskaltzaleak elkartearen kide eta bultzatzailea. Hauek guztiak ezagutzeko eta beraiekin lan egiteko aukera izan zuen Ixaka Lopez-Mendizabalek.

Ez zen Ixakaren estiloa salaketa eta errebindikazio hutsean geratzea. Eta aurrekoarekin lotuta dago On Manuel Lekuonak kontatutako pasadizoa, Gasteizko Apaizgaitegian Euskal Katedraren sorrera agertzen duena. Apaizgaitegiko erretore On Liborio Azpiazu, Beteluko bainuetxera etorria zen 1915eko udan. Erretore jauna pertsonaia oso ezaguna zen garai hartan, eta ez euskara gehiegi maite zuelako preziso. Baina eskaera egin aurreko ezezkoarekin konforme ez eta han joan zitzaizkion Lopez-Mendizabal, Doreteo Ziaurritz eta Jose Eizagirre bisitan bainuetxera, Apaizgaitegian euskal katedra zabal zezan eskatzera. On Manuelen hitzetan:

«... eta ain bero mintzatu zitzaizkion, ain bero ere, ain argi ikuserazi zioten gure Don Liborio-ri, baztar guztietan Euskeraren alde zetorren olatu uin ederra, bolara izugarria... urte artantxe bertan erabaki zuan, Gotzaiarekin egon-da, Euskerazko Ikastaldiak ipintzea. Gogoan daukat. Urte artan bertan Kampion-en Gramatika galtzarbean artuta asi nintzan nere Ikasgaitxoak apaiz-gaiei ematen. Ikastola artan igaro bait ziran handik aurrera, gerratea etorri zan arteko apaizgai guztiak. Eta ez probetxu gutxirako asko ta askoren aldetik; ez nere egitez, bear bada, bere gogo ta azkartasunez baizik. Dana dala, arrikada zuzen ta eder ura, Tolosa'ko gure Ixaka'ren Ekipotik atera zan; ez degu aaztu behar.»



4



Merezi du berriz Tolosako talde honen ikuspegi aurrerakoia aipatzea. Mende hasierako urteetan egindako eskaerek, badute gaurkotasunik, han-hemenka Euskal Herriko zokoetan agertzen baitira oraindik ere antzeko eskaerak. Abertzale-taldeak Tolosako Euzko Batzokiyan bildurik, bandoak gazteleraz eman beharrean euskaraz eman zitzaizkien eskatu baitzuten Udalarari. Eta horren aldeko erabakirik ere lortu zuten, ondoren osotasunean bete ez bazen ere. Horrekin aski ez eta, herriko langileen postuak betetzeko euskaraz zuzen egitea baldintza gisa jasotzea ere eskatu zuten, igualean euskaldunak aukeratzeko.



Ixaka mutikoa Eusebio aitarekin; euskaraz ez jakin arren, semearengan euskararen aldeko maitasuna pizten biziki ahalegindu zen



TRADIZIOZ INPRIMATZAILE

Lopez-Mendizabal familiaren moldiztegiak 1750. urtean izan zuen jatorria, Francisco de La Lamaren eskutik. 1802an Gipuzkoako Foru Diputazioak lurraldeko inprimatzaile izendatu zuen, hurrengo urtean Batzar Nagusiek Bergaran egindako bilkuran izendapena berretsiz. Hartara, lehenengo aldiz izan zuen probintziako moldiztegiak bere egoitza hiriburutik kanpo.

Sortzailea hil zenean, Josefa Antonia bere alaba bakarra Goiazko Juan Ignacio Mendizabalekin ezkondu zen. Juan Ignacio Mendizabal eta Josefa Antonia de La Lamak alaba bakarra izan zuten, Juliana, Eusebio Lopezekin ezkondua, Ixakaren ama.

5



Ixakaren jaiotetxea, Solana kaleko *Ballastegi-Enea*. Beheko aldean, Lopez-Mendizabaltarren moldiztegia

Eusebio Lopez ezkontzaz moldiztegiko buru egin zenetik, beste inon argitaratzeko zailtasunak zituzten liburugileek Tolosako moldiztegian aurkitzen zuten beren lanen zabalkunderako beharrezko txokoa. Eusebio Lopezek makinak dantzan jartzen zituen bertako hizkuntza eta kulturarekin zerikusirik zuen lanen bat esku artera etortzen zitzaion bakoitzean. Gutxi batzuk aipatzen hasita, bere etxean egindakoak izan ziren, besteak beste, J. Moret-en *Anales del Reino de Navarra* hamar liburukitan; *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, A. Henao-rena; Pablo Gorosabel historialariaren *Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa*; Arturo Kanpion-en *Gramática de los cuatro dialectos de Vasconce*, itxura ederrez argitaratua, azal estanpatuez eta urrezko letrez apainduta; J.F. Aizkibel-en *Diccionario Basco-Español Euskeratik Erderara biurtzeko Iztegia...* Eta inprimatzaile honen beste lan aipagarrienak bezala, On Manuel Lekuonaren iritzian, euskal literaturan klasiko bihurtu diren beste bi idazlan: Lardizabal zaldibiarraren *Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira* eta Aita Mendibururen *Otoitz gaiak*.



Eusebio Lopezek argitaratutako J.F. Aizkibelen hiztegia, edizio dotorean



Ixaka Lopez-Mendizabalek moldiztegiaren ardura hartu zuenean, Txiki margolariak prestutako ex-libris-a (inprimatzailearen «marka», nolabait esateko, moldiztegitik ateratako liburu guztiei atzeko azalean jartzen zaiena)

BIOGRAFIA

Ixaka Lopez-Mendizabal 1879ko apirilaren 11n jaio zen Tolosan, Solana kaleko Ballastegi-Enea etxean, karlista-giroko familian. Nafarra zuen aita, Lodosakoa; bigarren karlistadan Karlos VII. erregearen Zaldizko Goardia-mutil ibilitakoa, gerrako lanak bukatuta, batetik bestera ibilia eta azkenean, Tolosara iritsi eta Juliana Mendizabal bertako alabarekin ezkondua. Ixaka seme bakarra izan zen.



Eusebio Lopez
alargundu zenean,
bigarren ezkondu
zen, oraingoan
Leona
Arrillagarekin

7



Ixakaren ama, Juliana Mendizabal,
Ixaka eta aitaren artean



Etxe honetan hasi zituen ikasketak Ixaka gazteak, garai hartan Eskolapioen esku. Etxe hau Diputazioaren jauregia izana da aurretik, eta gaur egun, Tolosako Kultur Etxea da

Aitaren jakintzarako grinak bultzatuta, Tolosako Eskolapioetan egin zituen batxiler-titulua lortzerainoko ikasketak. Garaitsu horretan galdu zuen ama, artean nahiko gaztea. Geroago ezkondu zen bigarrenez bere aita, Leona Arrillaga Ansolarekin. Filosofia eta Letretako lizentziatura Salamancan egin zuen eta, doktoregoa Madrilen, 1899an. Ia berehala heldu zion Zuzenbidea ikasteari, eta 1903an lortu zuen bigarren doktoregoa.

Tolosan abokatu bezala hasi zen lanean, moldiztegi gaineko etxean. Errepublikara garaian fiskal izatera iritsi zen Tolosako Epaitegian; aldi batean, Iruñeko Lurralde Epaitegiak ordezko epaile izendatu zuen, 1903-1905


epealdian hain zuzen ere; bere herriko Eskolapioak Ikastetxean errektore izan zen bolada batean.



Ixaka Lopez-Mendizabalek Madrilen bigarren doktoregoa atera zuenean egindako argazkia

Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, erbestera bultzatu zuen euskararen aldeko joerak eta abertzaletasunarekin hartutako konpromezu politikoak. Lehenik Donibane-Lohizunera eta geroago, 1938an, Argentinara. Altxatutako gudarosteak Tolosara heldu zirenean, Ixaka Lopez-Mendizabalen etxera sartu eta bere lan gehientsuenak erre egin zituzten herriko plazan jende aurrean. Bertan galdu zen bere aurrekoek, aitzak bereziki, eta Ixakak berak urteetan osatutako liburutegi handi bezain aberatsa.

Etxetik urrun familia aurrera atera beharrak ez zuen moteldu Ixaka Lopez-Mendizabalen kemena, eta Argentinan emandako urteetan tinko jarraitu zuen euskara eta euskal kulturaren zabalkundean.



Unibertsitateko ikasketak amaituta, berehala hasi zen artikuluak idazten Argentinako La Baskonia egunkarirako. Argazkian, *La Baskonia*-ren aleak Ixakak berak enkuadernazioan bilduta. Ixakaren inguruko berri asko, Argentinako egunkari honi esker gorde ahal izan da gaurdaino



Ikasketak amaituta, abokatu-bulegoa jarri zuen Tolosan, moldiztegiko lanetan bere aitari laguntzarekin batera

10

Gizon jantzia izan zen Ixaka Lopez-Mendizabal. Eta jakinduria horrek ikuspegi berezia eman zion euskarak eta euskal kulturak zituen beharren inguruan. Lehenik beharrak non zeuden sumatzen, eta ondoren, behar horiei bidezko irtenbidea ematen. Premia non, erantzuna han.

1901. urtean euskaltzale-taldea bildu zen Hondarribian euskara eta euskal kultura bultzatzeko; han ziren, besteak beste, Artuko Kanpion, Julio Urkijo, Serapio Mujika eta Ixaka Lopez-Mendizabal. Eskualzaleen Biltzarra sortu zuten. Euskal jaiak eta literatur lehiaketak antolatu zituzten, eta berebiziko garrantzia izan zuen mendearen hasieran euskal pizkundearen indar hartzean. Bilera horietako batera eraman zuen Ixakak lehen aldiz Arana Goirik asmatu berria zuen ikurrina.

Urte batzuk geroago etorri zen Euskaltzaindiaren sorrera. Ixaka Lopez-Mendizabalek hartu zuen parte hasierako bileretan; euskaltzain urgazle izatera iritsi zen eta azkeneko urteetan, baita ohorezko euskaltzain ere.



Eskualzaleen Biltzarraren sorreran parte hartu zuen Ixaka Lopez-Mendizabalek. Hurrengo bileretan ere partehartzaile zerrendetan agertzen da. Argazkian, 1908an Kanbon egindako bilkuran (goitik bigarren ilaran, erdi paretuan ageri da Ixaka)

1929an Eusebio aita hil zenean, Ixakak bere gain hartu zuen moldiztegiaren ardura. Makineria berritzeari ekin zion eta inprimagintza-lanetarako azken berrikuntzak etxeratu zituen, «Offset» teknika esaterako, koloretan inprimatzeari hasiera emanez.

Tolosan aurreneko ikastola sortu zenean, bultzatzaileetako izan zen. Tolosako Gorriti plazan hartu zuen egoitza Tolosa'ko Euzkel-Ikastola honek, 1922ko urtarrilaren 9an Patrizio Orkaiztegiren bedeinkazioaz ofizialki ateak zabalduz; ez zen arrakastatsua izan lehen saialdia, bost haur besterik ez baitzituen bildu eskola martxan jartzeko; berak bakarrik jakingo zituen lanak hartuta, seigarren baten gurasoak konbentzitu zituen azkenean, eta talde txiki horrekin abiatu zen lehen eskola hau. Garaia iritsitakoan, bertara eraman zuen Xabier semea.

Euskararen eta euskal kulturaren alde ordurarte erakutsitako jarreragatik, baina batez ere, alderdi abertzale batean izandako militantziagatik, Espainiako Gerra Zibila lehertu zenean, familiarekin batera erbesteko bide mingotsa hartu behar izan zuen.

Iparraldeko egonaldian mugaz hegoaldeetik ihesean irtendako euskaldunei harrera egin eta egoitza bilatzen jardun zuen. Baina egin behar

jasoetarako premia izan zuen orduko Eusko Jaurlaritzak, eta Jose Antonio Agirre lehendakariaren zuzeneko aginduak betez, Argentinara jo zuen, herrialde hartan gerratik ihesean zihoan euskaldun-taldea hartzeko prestaketa-lanak egin zitzaizkion. Gazte garaian hasita, harremanak bazituen herrialde hartan, eta uste ez bezala baliotsu izan zitzaizkion adiskidantza horiek, bereak eta ingurukoen nekeak arintzeko.

Ez zen makala izan Argentinan Ixaka Lopez-Mendizabalek lortu zuena: Hego Amerikako Ordezkaritza Orokorren sustatzaile nagusienetako bat izan zen. Baita Euskaldunen Adiskideen Nazioarteko Ligaren argentinarraren atalaren sustatzaile ere. Baina zalantza-izpirik gabe, lorpenik nagusia Roberto Ortiz Argentinako presidentearen eskutik lortutako dekretua izan zuen: *Decreto de inmigración vasca* horri esker, Argentinara iristen ziren euskaldunek jatorria frogatu besterik ez zuten egin behar izaten bertan geratzeko eskubidea bereganatzeko.

Argentinan erbesteratuta zegoela, adiskide batzuekin elkarlanean *Euzko Deya* egunkaria sortu zuen, euskarazko atala oso-osorik bere gain hartuta, jabetuta baitzegoen Euskal Herriko berriak Ameriketako

euskaldunei helarazteak zuen garrantziaz. Bi urte geroago, 1941ean, Ekin argitaletxea zabaldu zuen Andres M.^a Irujorekin batera.

Hego Amerikan emandako urte guztietan ez zen itzali kulturaren eta euskararen aldeko bere kezka. Hogeita sei urte luzez aritu zen euskarazko eskolak ematen, larunbatero, Laurak bat elkarteko lehendakari izan zen garaian hasita; euskal abestien zabalkundean ere nabarmendu zen, eta Lagun onak abesbatza sortu zuen, musika-zaletasunak bultzatuta.

1946. urte inguruan sortu zuen Argentinako Saski-Naski elkarte, Euskal Herriak bizitako gatazkak bertan behera utzitako proiektuari erbestean jarraipena eman nahirik. Euskal kultura, folklorea, artea, dantza eta musika zabaltzea zuen helburu elkarte sortu berriak, elkarkideen ezaguera jasotzeko. Argentinako euskaldunetz eta Euskal Herritik joandako gutxi batzuek osatu zuten taldea: dantza-ikuskizunak eta abesbatzaren emanaldiak izan ziren bere agerpenik nabarmenenak hamasei urtez. Saski-Naski taldeko partaide izan zen Nestor Basterretxea margolari eta eskultore bizkaitarra. Dantzan egiteaz gain, bere ardurakoak izan ziren garai honetan Saski-Naski-k emanaldietan erabiltzen zituen dekoratuak.

13




1946. urtean Argentinan euskarazko eskolak ematen aritu ondoren, bere ikasleek eskainitako omenaldian

Tolosako taldearen babesean jorratu zuen bere lana Ixaka Lopez-Mendizabalek, euskararen eta euskal kulturaren zabaltzailea izan zen, eta horretara zuzendu zuen bere ahalegin guztia. Eta kulturaren ikuspegi zabal batetik, alor ugari jorratu zuen bere idazlanetan: gramatika, hizkuntzalaritza, historia, legeria, eta abar. Beti ere ahaztu gabe lehenago aipatuta geratu diren erakundeetako partaidetza, politikari gisa egindako lana, eta irakasle, legegizon eta argitaratzaile ere izan zela.

Idatzizko sormen-lanaren hasiera, ikasketak amaitu ondorengo doktore-tesiekin abiatu zuen. Lehenengoa Madrilen Filosofia eta Letrak ikasketak amaitu eta doktoregoa lortzeko balio izan zion «Cantabria, la guerra cantábrica y el País Vasco en el tiempo de Augusto» tesia, 1899. urtean amaitu eta aurkeztua. Ondoren, Zuzenbide-agiria lortzeko idatzi zuen bere bigarren tesia, «Fueros de Guipúzcoa» izenburupean, 1903.ean.

Handik aurrerakoak dira, halere, Ixaka Lopez-Mendizabalen kultur kezkak bultzatutakoak eta zuzenean bere bizitzaren ardatz izan ziren printzipioen zabalkunde-egaria asetzera bideratuak.



Xabierto liburua izan da, zalantzarik gabe, ezagunena eta zabalduena gure artean. Aurreneko bertsioak argitalpen ugari ezagutu zuen, eta horrek bultzatuta, bizkaieraz prestatu zuen bigarren bertsioa

Euskal Eснаlea elkartearen babesean 1908an argitara eman zuen lehenengo euskal egutegia. Mila ale lehen argitaraldian. Baserrian zein kalean *Calendario Zaragozano* jasotzen ohituak, hasieran ez zuen arrakasta izugarririk izan. Ez zen horregatik kokildu, eta bere aita Eusebiok animatuta, aurrera egin zuen urteroko egutegia ateratzen. Hasi eta bost urtetara, sendotuta zegoen produktua, eta azken urteetan, 10.000 ale gipuzkeraz eta beste 2.000 lapurteraz argitaratzen zituen. Tartean ahulaldiren bat edo beste izan zuen urtero bildu beharreko lan honek, baina kasu horietan ere bere aita Eusebio zuen laguntzarik bizkorrena.

Ixaka Lopez-Mendizabalek idatzitako lehen liburuak erlijiozkoak izan ziren; Bilbon ikasle zela, ez zuen galdu bizkaieraz trebatzeko aukera, eta horrela osatu zuen lehen liburukia 1900an: *Amairu martizenak*. Ondoren etorri ziren *Jesusen Biotzaren maitale zintzoa*, *Escu liburua* eta *Kristauaren lagun ona*. Baina arlo honetako lanik esanguratsuena, indarrean zegoen Pio X.aren dotrina itzultzea izan zen: *Aita Santu amargarren Pio'ren dotriña laburra*. Liburukia Erromara helarazi zion Aita Santuari eta honen idazkaria Merry del Val kardinalaren bidez, bedeinkazioa bidali zion Ixakari

Gasteizeko gotzaindegiaren barrena; gipuzkeraz idatzitakoa izanik, Gotzainak Gipuzkoako apaizei dotrina hori erabiltzeko gomendioa egiten zien. Erlijioaren gaineko azken liburutxoa 1942an atera zuen, *Otoitzak*, Hebbelynk-en marrazki koloredunekin.

Ixaka Lopez-Mendizabalek 1908an *Manual de conversación castellano-euskera* lan ezaguna idatzi eta kaleratu zuen; bere garaian lan oso txukuna eta erabilgarria; lexiko eta esaeraz egoki hornitua, bilduma berean jaso zuen gramatika laburra lagungarri, Arturo Kanpionen hitzaurrearekin.

Haurrak euskaraz eskolaratzeko beharra lehen ikastolak sortu aurrekoa izan zuela bistakoa da Ixakaren kasuan. Urteak beharko ziren lehen eskola euskaldunak bere ateak zabaltzeko, baina ordurako aurreikusia zuen ikasgaiek, ordurarte ez bezala, euskaraz emanak behar zutela izan. Eta bere bizitza osoan jokabide izan zuen pentsatzetik egitera bitarteko tarte laburra hartuta, 1913an *Zenbakiztia* izenburuko aritmetika liburua idatzi zuen. Guztira hogeita bat ikasgai oinarrizko bildu zituen lan honetan, ikasgeletan euskaraz matematika-gaiak azaltzeko.

Aurreko hiztezigintza gutxietsi gabe, ezagutzen zituen hamazazpigarren mendeko Silvain Pouvreau-ren hiztegia, eta baita hemezortzigarrenetik aurrerakoak ere, M. Larramendirena, Duvoisin, M. Harriet, etxean inprimatutako Aizkibelena noski, Azkue, Lhande, Aita Mujika eta besteak ere; baina erabilerrazak ez zirelakoan edo, bere praktikotasunak eraginda, zerbait erabilgarriagoa atera nahi izan zuen Ixakak. Aurrekoak oinarri bezala hartuta eta hobetze bidean, euskararen idatzizko erabilpenerako sumatutako hutsuneak betetze aldera, 1916an 55.000 hitzetik gora biltzen zituen *Euzkel-Erdel Iztegia* osatu zuen; talde-lanerako betidanik erakutsitako prestutasunaz, lehenengo edizioan Roman de Vera aita kaputxinoaren *Diccionario vasco-castellano* erantsi zion lehen argitalpenari. Hiztegieta zokoetan gordetakoak, inork ezagutzekotan, Lizardi olerkariak ezagutzen zituen. Egunkarira emandako artikulua batean, gainerako hiztegiei meriturik kendu gabe, bi hiztegi aipatzen ditu garai hartako pizkundearen langileek ia besteren beharrik gabe maiz erabiliak: Azkue jaunarena eta Vera-Lopez Mendizabalena. Harrez gero beste lau bider eman zuen argitara, Veraren atala erantsi gabe azkenekoetan.

Ixaka Lopez-Mendizabalen hurrengo bi liburuak haurrek eskolan erabiltzeko eginak izan ziren, eta modu samur eta gozoan idatzitako irakurgaiak biltzen dituzte bi lanok: euskaraz irakurtzeko metodoa *Umearen laguna* izenburu pean, bata; eta bere libururik ezagunena, zabalduena eta gordeena bigarrena, *Xabiartxo* izenekoa. Euskal eskoletarako liburugintzak sekulako aurrerakada sumatu duen honetan, ezin ahaztuko da liburu honek markatu zuen mugarria, bere garairako ongi argitaratutakoa, John Zabalo *Txiki* donostiarraren marrazki biziarekin apaindua. Txiki izeneko hau berez Ingalaterran jaioa zen, gaztetan gurera etorria eta dezenteko ospea lortutakoa bere marrazkiekin. Aurrerago ere Ixaka Lopez-Mendizabalekin elkarlanean aritu zen. Hainbat alditan argitaratu eta aldi berean agortutako liburuak izan zuen bizkaierazko bertsiorik aita karmeldarrek moldatua eta 1949an argitaratua.



Argitaletxeko lanak bazterrera utzi gabe, etengabe jarraitu zuen Ixaka Lopez-Mendizabalek liburuak idazten. Jakintza handiko gizona zela esanda dago aurretik, eta bere jakintzaren jomugan biltzen zituen natur gaiak ere. Alor honetakoak ditu *Nekazaritza* izenarekin 1926an kaleratutakoa eta berak hainbesteko estimutan eta bere eskuez landu zuen erlezaintza gaitzat hartutakoa: *Erleak, beren bizitza eta oiturak*, 1933an.


Haurrentzako lan emankorrenekin jarraituz, 1931n *Martin Txilibitu* idatzi zuen, eskoletan lagungarri izateko euskal silabarioa.



Aurreneko ikastolen garaian, nabaria zen euskaraz prestatutako testuen gabezia. Irakurgaiak biltzen dituen *Martin Txilibitu* (silabarioa) eta aritmetika gaiak espreski haurtxoentzat prestatuta *Zenbakiztiya* liburuxkan

Euskara ikasteko lan gehiago atera zituen, helduei zuzenduak oraingoan *¿Quiere vd. hablar en euskera?* 1932an, *Voulez-vous parler le basque?* Iparraldean erbesteratua zegoela, eta *La Lengua Vasca, Gramática. Conversación, Diccionario* 1943an.





Ixakaren liburu askotan izan zuen kolaboratzaile John Zabalo Txiki marrazkilaria. Bere balioaren adierazgarri, Ixakari berari egindako karrikatura dotorea




Aurreko lan honen inguruan bada aipamenik. Ixaka Lopez-Mendizabalen kezketako bat, liburuak idatzi eta inprimatzeaz gain, lan horien zabalkundea zen; ohitura zuen argitara emandako liburuen ale batzuk gertuko zein urruneko ezagun eta adiskideen artean banatzekoa; hala, bere gramatikaren aleak han-hemenka banatu zituen hizkuntzalarien artean: Praga-ko Norbert Tauer, Chicago-ko unibertsitatean irakasle zegoen Joan Corominas, Karl Bouda alemaniarra, Alessandro Bausoni italiarra, eta abar. Horien artean ezaguna zuen John Mish Garay, amona euskalduna zuen poloniarra, New York-eko Public Library-n ekialdeko hizkuntzen saileko arduraduna. Hogei hizkuntzatan ongi moldatzen zen John Mish hau; euskara ere ondo menperatzen zuen, 1946ko *Argia* aldizkari batean eskainitako elkarrizketaren ondoan artikulua idazteko gai izanik. Bada, elkarrizketan aitortzen zuen euskara ikasi izana, Ixakaren gramatikari zor ziola.

Gramatikagintzan argitaratutako guztiak ez zion indarririk ahuldu beste lan berri bati ekiteko, eta hala eman zuen argitara 1945ean *Gramática abreviada*, egilearen esanetan, bere laburrean aurreko gramatika osoak baina dezentez neke gehiago eman ziona.

Kanpoan eta beste hizkuntzetan ateratako lan interesgarriak ez zizkien atak ixten. Bera bezala idazle asko eta askoren lan ugari ezagutzeko aukera izan zuen, ikasle garaian lehenik eta jakin-minak bultzatuta ondoren. Horien artean zegoen Gregorio Martínez Sierra idazle modernistak idatzitako antzerki lan bat, *Canción de cuna* izenarekin 1911n idatzitakoa. Bi aldiz pentsatu gabe heldu zion itzulpen-lanari eta 1932an eskuragarri jarri zuen lan berri hau, berpizkunde garaian suspertze nabaria izan zuen euskal antzerkiarentzat.

Eta kanpotik hartu beharreko produktuen artean, beti ere inprimatutako formatuan, kataluniarrek aspaldidanik landua eta gurean tradizio eskasa zuen komikigintza euskaldunen etxeetara sartzeko burutaziorik ere izan zuen. Ikusi dugu ez zela alfer agertzen behar ziren atak jotzeko, eta hala iritsi zen garai hartan arrakastaz *TBO* komikia kaleratzen zuen argitaletxera. Beharrezko baimenak lortu zituen komiki-aldizkariko marrazkien plantxak erabiltzeko; testuak euskaratu eta bertako kutsua ematearren, Txiki marrazkilariak egindako orri berriekin aberastuta, bi urtez astero atera zuen, *Poxpolin* bilduma berrizalea osatu arte.



19



Ez zuen gaztetxoek irakaskuntzak soilik kezkatzen. Helduagoek ere ikas zezaten, gramatika prestatu zuen eta zabalkundeaz arduratu. Ondoren ekingo zion beste bertsio laburtuagoa egiteari

Ixaka Lopez-Mendizabalen liburugintzaren agerpena amaitzeko, beste bi lan aipatu beharrekoak dira, historia alorrekoak biak ere: 1945ean idatzitako *Breve Historia del País Vasco* eta *El País Vasco, descripción general*. Bere zabalkunde lan gehienak euskaraz idatzitakoak izanik ere, Argentinako erbestean egindakoak eta argitaratuak gazteleraz idatziak ditu, bistakoa denez, sorterrian debekatuta baitzuen liburuen zabalkundea eta abegikor hartu zuen lurralderako eginak baitziren.



Inon baliagarritzat jotzen zuen materiala erabiltzeari ez zion muzin egiten. *Poxpolin* izan zen kataluniarrek ateratzen zuten *TBO*-ren euskarazko bertsioa, bertako hizkuntza eta gaietara egokitua

Bere azkenetako lana, baina ez horregatik apalagoa, bere jaioterrira itzuli baino urte batzuk lehenago idatzitako *Etimologías de apellidos vascos* liburukotea izan zen, 1958koa. Aspalditik zuen euskal abizenen jatorria biltzeko asmoa, eta ehunaka fitxa bildu zuen gerra aurretik, ihesaldian bertan utzi eta denak galdu bazituen ere. Behin Argentinan, bertako jende asko joaten omen zitzaion jatorriz euskal abizenaren nondik norakoak jakin nahian. Horrek animatu zuen berriz bilketa-lanean hastera. Familia osoa horretan jarri eta hamalau urtez aritu zen abizenak biltzen eta jatorriak aztertzen. Lanaren erdian jo zuen begietako gaitzak, itsututa uzteraino. Ez zuen horregatik atzera egin, eta bere alaba Itziarrek idazten zizkion makinaz Ixakak ahoz emandakoak; azkenean hogeita bost milatik gorako abizen-sorta bildu zuen lan mardul honetan.



ETA GAINERA...

Musikazale amorratua izan zen. Gaztetan egindako piano ikasketek zabaldu zizkioten zaletasunerako ateak. Unibertsitatetik itzulita, Orfeon Tolosano-ko bultzatzaile eta partaide izan zen. Geroago, baita Orfeon Pamplones eta Coral Bilbaína-n ere. Eduardo Mokoroa musikagilearen *Bi maitetasun* zortzikoaren hitzak Ixakak eginak izan ziren.

Ez zuen etsi musikaren gaia hartuta zerbait idatzita utzi gabe, eta saiakera aurkeztu zuen 1911n Seguran ospatu ziren Euskal Jaietan; aukeratutako gaia, ez nolana hiko: *El compás de cinco por ocho en la música vasca*. Saria jaso zuen aurkeztutako lanak.

21



Adimena ez ezik, gorputzaren prestaketa ez zuen alboratu. Kirolzale amorratua izan zen: gimnasta, eskiatzaile, eskalatzaile, ...



Euskal Herrian egindako lehen eski saioetako baten testigantza. Eskubikoa da Ixaka

Adiskide zituen Usandizaga eta Guridi. Pablo Sorozabalekin harreman izan zuen. Berlinen kontzertuak ematera iritsi ziren elkarrekin. Ixidoro Fagoaga tenore beratarrarekin ere izan zuen harremanik, musikaz gain, idazteko biek ala biek erakusten zuten zaletasunagatik. Pepe Eizagirre adiskide eta tenorearekin hainbat emanaldi eskaini zituen batetik bestera, horietako batean, Parisen. Gainera, Buenos Aires-eko San Juan Parrokian organoa jotzen izaten zen hilean behin.

Musika lanak eta partiturak argitaratzeko zeuden zailtasunez jabetuta *Editorial de música vasca* sortu zuen; «chibalete» eta karaktere-joko berezia lortu zuten horretarako Alemaniatik. Handik aurrera musikarien lanak argitaratzeko prestatu zuen moldiztegia.

Euskara zuen kutuna, baina gaztelera eta frantsesaz gain, ondo moldatzen zen alemanez, ingeleraz eta italieraz; latina irakasten ere jardun zuen bolada batean. Tolosako esperantozale-taldeko partaide izan zen.

Kirolzale amorratua, mendia eta eskia zituen gogoko. Tolosan sortu zen estatuko lehen eski-taldea, eta partaide izan zuen Ixaka, eta behin baino gehiagotan hartu zuen parte jauzi lehiaketetan. Hainbat artikulu idatzi zuen mendi-ibilaldien gainean.

Jose Migel Barandiaranekin aritu zen boladatxo batean Jentilbaratz izeneko haitz-tontorrean indusketa lanetan. Britainia aldean ibili zen trikuharriak aztertzen, eta aintzinako monumentuak ezagutzeko interesak bultzatuta, Siriako Baalbeck-eko akropolisia bisitatzen izan zen, geroago Egiptoko piramideak....

Ernio peko Mendikute kobazuloan miaketan zebilela, inoiz ikusi eta zerrendatu gabeko intsektua aurkitu zuen; *speonomus mendizabali* jarri zioten izena aurkitzailearen omenez. Bitxikeriekin jarraituz, Ixakak berak asmatu eta diseinatutako sukalde-eredu berria erregistratu zuen eta patentearen plakak oraindik ere familiaren eskuetan dira.

23




Azken urteetan, ikusmena galduta ere, ez zion idazteari utzi. Seme-alabek papereratzen zizkioten berak ahoz emandakoak. Baditu 95 urterekin sinatu eta argitaratutako artikuluak

Gazterik hasita, ehunaka artikulu idatzi zituen Argentinako *La Baskonia* egunkarian, *Euskal Esnalea*, *Yakintza RIEV*, eta abar. Garai batean, artikuluak osatzeko berak egiten zituen argazkiak ere, alor honetan ere nahikoa abildade erakutsiz, sariren bat irabazia baita argazki lehiaketetan. Bitxikeria modura, Turkian Mustafa Kemal Atatürk, estatu nazional turkiarraren sortzaileari Ixakak berak egindako argazkiak aipa daitezke.

Bere izaera irekiak ate gehienak zabaldu zizkion. Ez zuen arazorik izaten edonorekin edozertaz hitz egiteko. Pentsaera eta jokamolde arras desberdineko pertsonekin izan zuen harremana, horietako batzuen ideiekin inoiz bat ez etorri arren, berdin politika arloan, hizkuntzalaritzan edo euskararen suspertze bidean. Gertuenekoak aipatzearren, aurrez aurre izan zituen noiz edo noiz, Castelao, Menendez Pidal eta Miguel Unamuno bezalako pertsonalitate esanguratsuak.

Azken finean, pertsona modernoa, berritzailea, ekintzailea eta aitzindaria; bere asmo, ideia eta nahien inguruko interesa bere inguruan ere pizten asmatu zuena. Gabeziak sumatzen trebe, irtenbideak hausnartzen eta bideratzen prestu. Batetik, langile amorratua izan zen; bestetik, euskara egin zuen bere bizitzaren ardatzetako bat; horri gaineratzen badiogu ia mendea urratzerainoko bizitza luzea, emaitza euskararentzat oparoa behar nahita ez.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Xabier Lopez-Mendizabal*
- *José Luis Villar argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1447-3 (Obra osoa)
84-457-1448-1

L.G.: BI-2.679-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística